VII. ERANSKINA.- KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN BIDEZKO BERME-EREDUA

Ziurtagiriaren zk. ……..
ENTITATEA [1]…….. (aurrerantzean, aseguratzailea),
IFZ…… eta helbide soziala ……..
eta horren izenean eta ordezkaritzan Jn./And. [2]……..
……adinez nagusia, NAN ……,
ekitaldi honetan behartzeko nahikoa ahalorde duela, Notarioaren aurrean egindako ahalorde-eskrituraren arabera
Jn./And……..……

herria ……., protokolo zk. ……., eta ekitaldi honetan bertan egindako berariazko adierazpenaren arabera, aipatutako ahalordeak une oro indarrean egonik bere eduki guztiari dagokionez,

ZIURTATZEN DU

Solidarioki eta Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoarekin eta hori garatzen duten arauekin bat etorriz:
[3]……..
IFZ…… eta helbide fiskala ……..
Lasarte-Oriako Udalaren aurrean, Baldintza Administratiboen Orrietatik eta kontratu-izaera duten eta xedetzat EDATEKO URAREN HORNIDURA-SAREA ZATARAINEN duen kontratazioa arautuko duten gainerako agirietatik ondoriozta daitezkeen obligazio, zigor eta gainerako gastuei erantzutearren; hori guztia, aipatutako Baldintza Administratiboen Orrietako 9 Klausulak xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskaintzen den Asegurua ondorengo baldintza hauen arabera eratu dela ulertzen da:

1) Zenbateko honetan eratu da: …….. EURO (……..€)
(zenbakitan eta letratan)

2) Lasarte-Oriako Udaleko Diruzaintzaren izenean eratu da.

3) Aseguru honek balioa izango du, Lasarte-Oriako Udalak baliogabetu dadila baimentzen duen arte.

4) Entitate aseguratzailea solidarioki behartu da Lasarte-Oriako Udaleko Diruzaintzari ordaintzera, xede horrekin egiten den lehen eskakizunean, aseguratutako zorraren ordainketa egin ezean, eta Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 0. artikuluan aurreikusitako epeen barruan, esekita geratutako zenbatekoak, dagokion berandutzaren lege-interesak eta aipatutako zordunak horretarako epean ez ordaintzeagatik izan ditzakeen gainkargu eta kostak.

5) Entitate aseguratzaileak uko egiten dio edozein mozkini, eta bereziki, aldez aurreko ondasun-eskusio, ordena eta zatiketarenari, eta ohartarazten zaio, berandutzan erortzen bada, bere ondasunen aurka joko dela premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez.

6) Entitate aseguratzaileak aitortzen du, bere erantzukizunpean, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 56.2. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela.

7) Entitate aseguratzailearen helbide gisa, berme honetatik ondorioztatzen diren ondorioetarako, _____ zk. bulegoa izango da, _____-n kokatua.

(Lekua, data eta ahaldunen sinadura)

[1] Berme hori kreditu-entitate batek edo elkarrekiko bermerako sozietate batek jarri behar du Banco de Españaren entitateen Erregistroan, eta hark eta Europako Banku Zentralak gainbegiratuko du, Gainbegiratze Mekanismo Bakarraren esparruan, eta halaber,

[2] Entitate aseguratzaileko ahaldunen izen-abizenak

[3] Aseguratuaren izen-abizenak edo sozietate-izena